

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko ikasleek URBIL merkataritza-guneak sortzen dituen hondakinei buruzko AUDITORIA egingo dute

2008/11/26

Proiektu honen helburua, merkataritza-sektoreak eta antzekoek sortzen dituzten hondakinak gutxitzeko eta tratatzeko kudeaketa eredu bat sortzea da. Merkataritza-sektore horretan honako jarduerak daude: ostalaritza, errestaurazioa, komertzioak, merkatuak, azalera handiak, elikagaiak banatzeko kateak eta nekazaritzako elikagaien industria.

Proiektuak duen garrantziaz jabetzeko, jarduera komertzialak urtean 160.000 tona hondakin sortzen dituela jakitea garrantzitsua da; hau da, Gipuzkoan sortzen diren hiri-zabor guztien herena.

